

# BALEIKE

200 pta.

56. zenb.



● **A. Zubimendi:**  
"Gero eta  
jende  
gutxiagok  
jotzen du  
danborradan"

● **Lizarra-Garazi**  
akordioko  
batzordea  
Zumaian

● **Alde zaharra**  
eraberritzeko  
aurreproiektua  
onartu da

● **Zapiak lepora!!**


Zumaiako herri aldizkaria

1999ko martxoa

# BALEIKE

200 pta.

55. zenb.



● Erreportaia:  
Insumisioak  
10 urtebete  
ditu

● Elkarrizketa:  
Esther Osa,  
3 urte  
Panamako  
oihanean

● Torreberri  
itzala kendu  
diote

● **Mariano berriro zumaiar onena**

Martxoko zenbakian, froga gisa hasieran erabilitako portada joan zitzaigun inprimategira, eta benetan behar zuena, honako hau, ezkutuan geratu zen. Barkatu hanka-sartzea!



Foronda kultur etxea  
tel.: 943 86 10 56  
faxa: 943 86 17 42  
e-posta: baleike@yahoo.com

**Argitaratzailea**

ZUMAIAKO GAZTE BATZORDEA

**Administrazio batzardea**

Xabier Azkue  
Uxua Ostolaza  
Inaki Zubimendi

**Erredakzio batzardea**

Antxoka Agirre  
Esther Aizpurua  
Eneko Dorronsoro  
Ane Osa

Joseba Ossa  
J.L. Romatet

Igor Uranga  
Josu Waliño  
Gorka Zabaleta

**Kazetariak**

Antxoka Agirre  
Igor Uranga  
Gorka Zabaleta

**Kolaboratzaileak**

Ostarrena Zine Klub taldea, Ingurugiro tailer eskola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Jon Manzidor, Fototeka, Andoni Ormazuri e.a.

**Komikia**

Daniel Carballo

**Argazkiak**

Jonathan Bernal  
Baleike

**Diseinua**

Juan Luis Blanco

**Maketazioa**

Argi Aizpurua

**Hizkuntz zuzenketa**

Xabier Azkue

**Banaketa**

Andoni Ormazuri  
J.J. eta konpainia

**Publizitatea**

Uxua Ostolaza

(943 861056)

**Inprimategia**

Gertu Inprimategia  
(Zubillaga - Oñati)

**Tirada**

1.000 ale

**Lege gordailua**

SS-405/94

**ISSN**

1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Arabiakoa ala ETB-koa?

Aste Santu honetan telebistan eskaini diren filmeen artean, bi maisu-lan aurkitu ditugu: Stanley Kubrick-en "Espartaco" eta David Lean-en "Lawrence de Arabia". Estreinatuta zirenetik hainbat eta hainbat alditan mutilatuak izan dira, baina baita orain hamarkada bat inguru berrizatuak ere. "Espartaco" orain pare bat urte ere bota zuten telebistaz, baina lehen aldia da Arabian gertatzen den filma espektakular, eta aldi berean intimista den "Lawrence de Arabia"-ren bertsio osoa eskaintzen dela. Beno, Canal + kateak ere eskaini zuen, baina hau ordaindu egin behar denez... Filma bere osotasunean dago orain, David Lean berak nahi zuen bezala, kendu zitzaizkion ordu erdi hura berriz barruan duela, kolore berriztatuekin, Scope formato originalean. Hitz gutxitan, edozein zinezalek bere bideotekan gorde beharko lukeen arte-lan bat. Bertsio hau da Tele 5 telebista kateak larunbat gaberako agindu zuena. Baina hara nola ETB-k, gure telebista kateak, gu hainbeste denbora zain ez egoteko edo, film bera aukeratzen duen larunbat arratsalderako. Hau jakitean, galdera bat etorri zitzaidan burura: film berrituaren eskubideak Tele 5-k baditu, ze bertsio eskaini behar digu ETB-k? Galdera nahiko absurdua, ETB-ren film-kastratzaile famaz ohartzen bagara. Badirudi ETBko film erosleek merkatuan dauden pelikulen kopia merkeenak erosten dituztela: filma zuri-beltzean bada, koloreatua erosi; koloretan bada, dekoloratua aukeratu; Cinemascopean bada, telebista formatura egokitua dagoen kopia onartu. Ba, bere ohiturari jarraituz, Euskal Telebistak "Lawrence de Arabia"-ren kopia eskasena eskaini digu: mutilatutako bertsioa, ia kolorerik gabea eta Scopea pikutara bidalia. Agian batzuk galdetuko duzue ea hainbesteko diferentzia dagoen bien artean Adibide batekin esplikatzeko saiatuko naiz. "Lawrence de Arabia"-ren merezitako famen artean, Arabiakoa desertuaren ikuspegi erraldoi, izugarri eder bat ematea dago, ordura arte, eta ordutik, inoiz errepikatu ez dena. ETB-ko kopian, aldiz, Arabiakoa desertuaren orde, Santixoko dunak agertzen dira, ez dago edertasunik, hondar pixka bat besterik ez da ikusten. Historia guztiko filmerik onenetakoa dena, ETB-ren bertsioan erdi mailakoa bihurtzen da.



Juan Luis Romatet

Ez dakit kontraprogramazio ekintza hau Aspe-ETB/Asegarre-Tele 5 gerraren beste kapitulu bat den, baina oraingo honetan, eta bi kateek eskaini duten filma beraren bertsioak ikusita, ETB-k ridikulu lotsagarria egin duela, nire ustez behintzat, ez dago dudarik.

### Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48
Alkoholikoen senideak	943 47 54 03	Sexu-informazioa	943 32 04 44


Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiko Udala



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



## “Zumaia eta arrauna” liburuxka argitaratu da

*Gabonetan egin zen I. bertso-paper lehiaketako lanak liburuxka batean bildu dira eta dagoeneko eskuratzeko moduan dago, honako puntu hauetan: Erribera kaleko Errotan, Aizpurua liburutegian, Foronda kultur etxean eta Inpernupetabarnan. Zumaiaiko Bertso Eskola izan da argitaratzailea, eta Udalaren babesa eta aldizkari honen laguntza izan ditu, 52 orrialdeko argitalpen hau kaleratzeko. Laguntza horren ordainetan, Baleikeko harpidedunek ale bana jasoko dute, doan. Liburuxkan 10 bertso-paper bildu eta arraunari buruzko zenbait irudirekin tartekatu dira. Bertsoak, berriz, neurri eta estilo guztietakoak topatuko dituzu.*

Eneko Dorronsorok Habanera doinuaren egin zuen bere sorta, irudi eta metaforaz jositako bertso-paperera. Hona azken alea (lehen bi puntuak errepikatu egin behar dira):

*Uhinen atzapar zakarrek  
laztantzten dute txalupa  
uraren zorabioan*

*taosapean galduta  
itzuleran betarteen  
aldaketa ezin uka  
untzi puntan ipinita  
txakurrak gustora zaunka  
balea ixilik dator  
astebeterako mauka  
herri batentzat banderak  
balio berdina dauka.*

Ibon Aizpuruak “Aizak hi mutil mainontzi” doinu berezia hautatu zuen, hasiera-hasieratik oikiarrek irabazitako “trapua” gogora ekarri eta beste zazpi bertso bixi-bixi idazteko. Hona bigarrena, trainerua deskribatzen duena:

*Berez duen trebezia  
dauka guztiz merezia,  
giza indarrez soilikan doan  
ontzi berezia.  
Olatutzarren hesia  
gailentzeko da hezia,  
itsas azala ebakiz doan  
zurezko gezia.*

Angel Etxanizek ederki deskribatzen du arraun taldearen historia eta arraunlarien sakrifizioa, “Begira nago jarria beraz...” doinuaren. Zazpigarren bertsoan, esate baterako:

*Denok dakigu gorengo mailan  
mantentzea zaila dala  
Eta Zumaia berriro dugu  
lehengo talde apala.  
Lekeitioko bandera aurten  
ez da izan lorpen makala.  
Garai batean normala. (Bis)  
Gose dagoenak estimatzen du  
mamia hainbat azala  
orain edozer ospatzen dugu  
orduak Kontxa bezala. (Bis)*

Manu Garatek oso ondo azaltzen ditu garai bateko ohiturak nolakoak ziren, gainera Orioko balearen doinuaren, eta ontzien izenen zerrendatxo bat ere eskaintzen digu, hirugarren bertsoan:

*Txanela ta txintxorro  
tiña ta batel  
uretako ontziak gabarra bezela  
askorentzako a ze  
hizkuntza ergela  
baina jakin arraunaz  
mugitzen zirela.*

Honako hau lehenengo liburuxka besterik ez da. Datorren urtean, okerrik ez bada behintzat, bigarrena argitaratuko da, Zumaiaarekin lotutako beste gairen bat hartuta.

◀ XABIER AZKUE.



**7 MARES**  
Arrain eta mariskoak  
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak  
7 MARES IDOZTUAK  
Zuloaga plaza, 1  
Tel. 862309

HARATEGIA  
URDAITEGIA  
**agustin**  
HARAKINA  
Itzurun zuhaitzbidea, 1  
Tel. 862430

**ΔΙΣΜΑΝ-ΚΟΣ S.L.**  
SANEAMENDU ETA  
ERAIKUNTZA MATERIALAK  
Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa  
Tel. Faxa: 148124  
20740 IRAETA- ZESTOA

## Errepideko bi karrilak zabalik



Errepidea zabaldu baino astebete lehenago atera zen argazki hau.

### Hilabete eta erdiko aurrerapenaz amaitu dituzte Getaria eta Zumaia arteko errepideko konponketa lanak

Ohikoa ez bada ere, oraingo honetan aurrerapen handiarekin amaitu dituzte Zumaia eta Getaria arteko errepideko lanak. Abenduaren 1ean mendiak errepideko ia 200 metro jan zituenean Diputazioak karril bat apirilaren 1erako zabalduko zutela iragarri zuen, eta bestea maiatz erdialderako. Gehienok ez genituen hitz horiek sinetsi, besteak beste, orain arte esperientziak kontrakoa erakutsi digulako. Zorionez oker geunden, eta martxoaren 30ean, asteartea, arratsaldeko ordu bietan zabaldu zituzten ofizialki bi karrilak. Lanak espero baino azkarrago egin dituztela aitortu behar zaie. Gainera, Aste

Santuari eta San Telmoei aurre hartu izana alde handia izan da.

Baina laudorioak laudorio, etorkizunean zer gertatuko den da orain garrantzitsuena. Negua joan da, eta datozen hilabeteotan ziurrenik ez dugu mozketarik izango. Baina hurrengo negua iristen denean, zer gertatuko da? Kostako errepideak behin-betiko soluziorik ba ote du? Diputazioak oraingoz ez du obra handirik egiteko asmorik, eta nahiago du urtero gertatzen diren lurjausiak konpondu. Inguruaren azterketa geologikoa egiten ari dira, baina ez dirudi epe ertainera inolako proiekturik burutzeko asmoa dutenik.

Oraingoz, errepidea moztuta gelditzen zaigun bakoitzean Meagako errepidea erabiltzen jarraitu beharko dugu, edota autopista.

Zumaia eta Getariako Udalek kostako errepideari eutsi nahi diote, kosta ahala kosta. Horregatik, errepidea moztuta dagoen bitartean autopistako bidesaria kentzeko eskatzeaz gain, zenbait irtenbide proposatu dituzte. Besteak beste, errepidea mendiaren gainaldetik egitea, edota, Zumaia eta Getaria artean bide bat egitea ahalbidetuko lukeen dike bat eraikitzea proposatu dute. ◀

 **ALBAITARITZA  
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN  
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea  
Tel. 143310  
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak  
- 24 ordu  
- zeure etxean

*Alberdi*

*Gizonetzkoen moda*



Erribera kalea, 6  
Tel. 861155

 **ANA**  
ETXERO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

## Alde Zaharra berritzeko plana onartu da



*Udal plenoak Zumaiako Alde Zaharra berritzeko planari hasierako onarpena eman dio. Plan honekin Alde Zaharraren narriadura prozesua geratu nahi da. Plan honi behin-betiko onarpena hemendik urtebete ingurura ematea espero da.*

Plan honetan hirigintza aldetik ez da lan ikusgarriarik ikusten, egoera txarrean dauden etxebizitzetan egin nahi da lan. Horrela, plan honek etxebizitza bakoitzaren irizpideak zehazten ditu. Eraikin bakoitzaren fitxa bat egin da, eta horrela eraikin bakoitzaren interesa zein den jakin da, zer bota daiteken eta zer ez, ze zaharberritze lan egin behar diren eta ze motatakoa. Horrela, babes maila batzuk daude. Adibidez, Ubillos, Parrokia, Komentua eta Uriarte jauregiak babes berezia dute, ezin dira bota eta egin beharreko berriztapen lanak oso zientifikoak izango dira. Erdi mailako babesa izango duten eraikinetan (Goiko torrea, Udaletxea, etab.) berriztapen kontserbatzailea erabiliko da. Beste babes mota bat oinarrizko babesa da. Babes maila honen barruan sartzen dira Alde Zaharreko ia eraikuntza denak, eta hauen interesa, arkitektonikoa baino, paisajistikoa da.

Planean agertzen den beste puntu bat, Alde Zaharraren erabilera da. Herriko alde horretan ez da inolaz ere erabilera industrialik onartuko, eta bai etxebizitza, bulego, merkataritza, ekipamendu kolektiboa (administrazioaren zerbitzuak, kulturalak, irakas-kuntzarena, osasun ekipamenduak, etab.) eta etxebizitzarekin bateragarriak diren instalazioak.

Plan berezi honek Alde Zaharrak jasaten duen trafikoa, oinezkoentzako bideak, gune publikoak, plazak eta aparkalekuak ere arautu nahi ditu. Garrantzi handia ematen zaio biztanleentzat aparkalekuak sortzeari, oraingo egoera, denen ustez, guztiz kaotikoa baita. Aparkaleku horiek Alde Zaharreko hainbat lekutan kokatuko lirateke. Eusebio Gurrutxaga plazako etxebizitzetan atzealdean dauden barazketan egongo litzateke aparkaleku hauetako bat, 22 autoentzat lekua edukiko lukeena. Komentuaren atzealdean, aldiz, bi

### Antonio Etxabe



*Gizonezkoen  
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 861407

**ARGIA**  
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

**Arkupe**  
*Okindegia  
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

mailako lurrazpiko parking bat egitea pentsatzen da. Honek lurrazpian 114 aparkaleku edukiko lituzke, eta goikaldean beste 49 autoentzat lekua izango luke. Behar izanez gero, parkingaren gainean ekipamendu berriak sortuko liriteke. Hala ere, esan behar da, proiektu hau ezerezean gera daitekela, aparkaleku hauen jabe izateko biztanleek diru kantitate bat ordaindu egin beharko baitute, eta hauek ez baitaude hori egiteko prest. Trafikoari dagokionez, beste puntu garrantzitsu bat, Alde Zaharra oinezkoentzat jartzea da. Orain jasaten duen trafikoa Bonifazio Etxegarai kalera bideratuko litzateke, eta hau izango litzateke bertako bide nagusia. Bide hau Komentu atzeraino joango litzateke, eta beste bide batzuekin loturak eginez, trafikoa Odieta ingurura joango litzateke. Kale Nagusia, aurrez ezarritako ordu batzuetan karga-deskargako kalea bihurtuko litzateke, baina beti oinezkoentzako bidea.

Badaude Alde Zaharrean sartzan ez diren eraikin batzuk baina Udalak plan honetan sartu nahi dituenak: Udaltxearen ondoan dagoen eraikina (Serafin-en etxea deitutakoa, Harategi kaletik Ardantzabidera jaisten den eskailera eta bertan dauden alberka zaharrak, eta Pulpo eta Justako etxeak. Aurreko batean ere Alde Zaharraren limiteak haunditu nahi izan ziren, eraikin hauek bertan sartzeko, baina Eusko Jaurlaritzak ezezkoa eman zuen. Orain saiakera berri bat egingo da helburu hauek lortzeko.

Hasieran esan den bezala, plenoak eman duen onarpenera hasierakoa da.

Behin-betiko onarpenera emateko tramite luzea bete behar du oraindik. Orain eman zaion onarpenaren ondoren, Gipuzkoako buletinean publikatu eta gero, 30 eguneko epea egongo da jendeak alegazioak egiteko. Argudio denak aztertu ondoren, berriz ere plenotik pasatuko da, honek behin-behineko onarpenera eman diezaion. Honen ondoren plana Foru Aldundira pasatuko da. Aldundiak Eusko Jaurlaritzari pasatuko dio plana, bakoitzak bere txostena prestatuko du eta diputatu kontseilura iritsiko da. Honek eskatzen dituen aldaketak egin ondoren behin-betiko onarpenera ematea espero da.

Denbora dezente igaro da 1995eko urtarrilean planaren aurrerapena ezagutu zenetik. Atzerapen honen arrazoia jendearen partehartze eskasean egon daiteke. Planaren aurrerapena aurkeztu ondoren, Udala jendearen iradokizunen zain geratu zen. Hauek heldu ez zirenez, Ekai

elkarteari biztanle artean inkesta bat egitea eskatu zitzaion. Hemendik ere ez zen gauza garbirik atera. Gauzak horrela, plana denbora luzez egon da mahai gainean geldirik, azken bultzada eman zaion arte.

Plan honekin jendeari Alde Zaharra ezagutarazi nahi zaio. Luciano Paguegi arkitektoaren esanetan, alde zahar umila da Zumaiakoa, baina oso ondo dago, honen ibilbidea bereziki. Oso kostaldekoea da, gotiko estiloko elkar atxikitutako etxeak dituena. Ibilbide urbanistikoa oso ezezaguna du. Alde Zaharrari bizitza eman nahi zaio, gune erakargarri bihurtuz, bere zuhaitz, plaza eta azokekin, eta horrela jendea bertara igo dadin.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Luciano Paguegi, Zumaiako udaleko arkitektoa



**AUTO-ESKOLA**



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

**ZUMAIÀ**

Basadi, 12 behea Tel. 861018



**AXIER KIROLAK**

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206




### Euskal presoak Euskal Herriratzearen aldeko manifestaldia

Joan den martxoaren 27an euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko manifestazio isila egin zen herriko kaleetan zehar, Senideakek deiturik, eta herriko hainbat talderen babesarekin. Arratsaldeko 6:30etan abiatu zen Beheko Plazatik, eta abenduaren 31n egindakoan baino jende gutxiago bildu bazen ere, erantzun ona eman zuten zumaiarrek. Ekitaldia Beheko Plazan bertan amaitu zen, idazki bat irakurri ondoren.

### Torreberri zementuz bete dute

Goiko solairuetako horma arriskutsuak bota ondoren, zementuz babestu dituzte ertzak euriak kalte gehiago egin ez diezaien eta, bide batez, bete egin dute barneko zuloa. Eskailera batzuk ere egin dizkiote, eta orain bertara sar daiteke, eguzkia hartzera edo.




### Argiak jarri dizkiote barrari

Paolak ematen duen argiarekin nahikoa ez dela eta argiak jarri dizkiote barrari. Farolak jarri beharrean, lurrean sartu dituzte, horrela itsasoaren enbatak kalterik egingo ez dielakoan. Ilunpearen babesa nahi duenak beste leku bat bilatu beharko du hemendik aurrera.

### Kiroldegiak logotipo berria

"Lubaki" izena hartzearekin batera, kiroldegiak irudi baten jabe egin nahi izan du, igerilekuarekin hainbesteko indarra hartuko duen gune hau errazago identifikatu ahal izateko. Logotipoa eskuratzeko lehiaketa bat antolatu zuen eta irabazlea Ainara eta Maialen Sagarnak aurkeztutakoa izan da, "lubaki" hitzaren esanahiarekin jolasten duena. Bi ahizpa usurbildarrek 75.000 pezetako saria jasoko dute logotipoaren ordainetan.



  
**Azkue Autoak**  
 Estazioko kalea, 19  
 Tel. 861433  
 Faxa: 861067

*balezulo*  
 inportaturiko erroa eta artisautza  
  
 Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D  
 Tel. 861449  
  
**BARRENETXEA**  
*Garraioak*  
**GARRAIO ASTUNAK**



# san telmoak 99



Arrantzaleen patroia  
jai-giroaren balkoia  
itsasoratu behar ez arren  
arrantza sasoi  
presta dezagun arpoia  
ontzia hemen dago ia  
legatz frexkuak zerbezatan blai  
hau dek paranoia

Itsasoaren urdina  
bizi-iturri jakina  
bare egona harro jarri da  
ukatu ezina  
iparretik haize fina  
olatuen zipriztina  
ekaitzaldian zutik irauten  
egin ahalegina

ENEKO DORRONSORO

## Hemen dira San Telmoak!!!

Olarru zopa eta kantu  
lehiaketak dira aurtengo  
berrikuntza aipagarrienak

Azkenean iritsi dira San Telmoak, jai giroan gozatzeko egun ezin hobeak zumaiarrontzat. Aurtengo egitarauak ohizko bideari eusten dio, baina badira aipagarriak diren zenbait berrikuntza. Beheko Plaza elkarteko jubilatua zeharo animatuta ditugu aurten, festetan buru belarri murgiltzeko gogo biziz, eta bi ekitaldi prestatu dituzte: Olarru zopa lehiaketa, eta Rana joko lehiaketa. Beste eskaintza berririk ere

bada, hala nola, udalak antolatu duen I. kantu lehiaketa, eta Urrezko Aizkoraren kanporaketa Senosiain eta Nazabalen artean. Hauetaz gain, ohizko danborradak, pilota partiduak eta bestelako kirol ekitaldiak, prozesioak, musika emanaldiak, kontzertuak, herri bazkaria, koadrilen arteko jokoak... Herri bazkaria eta koadrilen arteko bazkaria? Egitarauan ez dira ageri behintzat. Herriko

gazteak festak antolatzeko orduan agertu ez diren bezala. Urruti gelditu dira, itxura denez, garai bateko manifestaldiak, egitarau alternatiboa, koadrilen arteko giro zoragarria eta gauzak egiteko gogo. Orain, nahiago dute -dugu- dena eginda jasotzea. Udalak ematen duena, horixe hartu. Festak parte hartzeko dira, bestela ez dira festa. Besterik gabe, ondo pasa guztiok!!!



**BASUSTA  
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073



Basadi Auzategia, 10 behea  
Tel. 862051

DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK  
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

**EGOKI**



*Erloju  
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

**BALEIKE**

1999ko apirila, 56. zenb.

## egitaraua

### OSTIRALA, APIRILAK 9

- **Iluntzean**, San Telmo kalekoen afaria, bertan kaleko seme-alaba zaharrenak omenduko dituzte.
- **22:30**etan, Aita Mari aretoan, San Telmoetako Bertsolari Saioa. Parte-hartzaileak: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Jon Sarasua, Jon Maia, Anjel Mari Peñagarikano, eta Aitor Mendiluze.  
Gaijartzailea: Josu Goikoetxea.

### LARUNBATA, APIRILAK 10

- **12:00**etan, San Telmo ermitan, txupinazoa jaiei hasiera emanaz. Jarraian, kalejira herrirantza Musika Eskolako

Trikitilari eta Haizezko bandatxoak alaiturik.

- Ordu berean: Telmo izeneko herriko seme eta kanpotik hurbildutako topaketa. Meza, herrian itzulia eta anaiarteko bazkaria.
- **16:00**etan, herriko gazteei zuzenduta, futbolin eta xake txapelketa.
- **18:00-21:00** bitartean eta
- **23:00**etatik **24:00**etara Aldaz Gora fanfarrea kalez kale arituko da.
- **22:00**etan, Odieta pilotalekuan, zesta partiduak X, San Telmo Sariko finalerdiak.
- **23:30**etan, Eusebio Gurrutxaga plazan, dantzaldia Etzakit taldearekin.

### IGANDEA, APIRILAK 11

- **8:00**etan goiz soinua Euskolara Txistulari taldea eta Donostiako Dultzaineroekin.
- **8:30**etan, Itzurun hondartzan zezenak.
- **11:30**etan, Arbustain motor elkarateak antolatuta, Kofradian hamaiketako itsasgizon zaharrentzat.
- **12:30**etan Udal Txistulari Bandarekin kalejira.
- **13:30**etan, Kofradian euskal dantza erakusketa Zarauzko Iratzarri taldearekin.  
Ordu berean, Etxabe Anaiak trikitilarien ekitaldia.
- **16:30**etatik **20:00**etara, Beheko plazan "Garabato de juego" haundi eta txikientzat joko eta jolasak, tailerrak,...
- **17:00**etan, Udaletxe aurretik irtenda, Udal Txistularien laguntzaz, Buruhaundi eta Erraldioen kalejira.
- **19:00**etatik **21:00**etara, Zumai Txarangaren saioa kalez kale.
- **23:00**etan hasita, Danborrada berezia.  
Bukatzean, plazan, Akelarre taldearekin dantzaldia.



### ASTELEHENA, APIRILAK 12: SAN TELMO EGUNA

- **8:00**etan, Meza, eta ondore Jauna-ekin prozesioa eta gaixoen jaunartzea, Udal Musika Bandarekin.

**EGUZKI PUB**  
Koktel bereziak  
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

**ekin**  
elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak  
instalazio musikalak  
antenak - parabolikoak  
akumuladoreak  
portero automatikoak  
telefonía

Televés  
Instalador  
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+  
CANAL DIGITAL

Erribera, 18  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa 943 - 143097  
629 - 450777

- **10:15**etan, Ohiturazko prozesioa San Telmo ermitaraino, Musika Banda-ekin.
- **10:30**etan, Meza Nagusia, itsasoaren bedeinkapena eta Parrokiara itzulera. San Telmoren erlikia gurtzea.
- **13:00**etan, Kofradiako plazan, Laja eta Iturbide trikitilarien saioa eta Zumaiaiko Bertso Eskolako gazte-txoen saioa.
- **17:00**etan, Odieta pilotalekuan, eskuzko pilota partidua, profesional mailan.
- **19:00**etan, haurren danborrada.
- **22:30**etatik **2:00**etara, Kofradiako plazaxoan, Kiñurekin dantzaldia.

### ASTEARTEA, APIRILAK 13

- **8:00**etan, Meza hildakoen alde.

### OSTIRALA, APIRILAK 16

- **22:30**etan, Odieta pilotalekuan profesional mailako pilota partidua:  
Palaz: Daniel-Garrido / Sanchez-Beldarrain.  
Zesta: Bereikua-Barrondo / Alberdi II.a-Enbil.
- **23:30**etan, Rock Kontzertua.

### LARUNBATA, APIRILAK 17

- **11:30**etan, Larretxoko plazaxoan, haur jolasak  
Ordu berean, Eusebio Gurrutxaga plazan: Olarru-zopa lehiaketa.

- San Telmotako toka txapelketa.
- **12:00**etan, Itzurunen, hondartzako XIV. futbol txapelketaren barne, Liga eta Kopako finalak.
- **17:00**etan, plazan haur berbena Triki-mailu Express taldearekin.
- **19:00**etan, Aita Mari aretoan, Zumaiaiko I. kantu lehiaketa.
- **22:00**etan, Odieta pilotalekuan, San Telmotako X. Zesta Txapelketaren barne, finalak.
- **23:00**etan hasita, Itxas-Gain txaranga-ekin kalejira.
- **23:30**etan, plazan Luhartz taldearekin dantzaldia.

### IGANDEA, APIRILAK 18

- **11**etatik **13**etara, eta **16:00**etatik
- **19:00**etara, Odieta pilotalekuan, San Telmotako VII. Scalextric Txapelketa. Eguerdian, plazan, haur festa Gorriti eta bere abereekin.
- **18:00**etan, trainerillen estropada XVII. San Telmo Saria.
- **19:30**etatik **21:00**etara, eta
- **23:00**etatik **2:00**etara Kofradiako plazaxoan, Ostantza taldearekin dantzaldia.



Auto-konponketak  
**ELKAR**

Estazioko kalea

TEL. 860201



**ENARA, S.L.**  
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15  
Tel. 862458



Agustin Zubimendi

San Telmoetako danborradako zuzendaria

## “Danbor berriak izango ditugu, baina jotzeko jendea falta zaigu”

*Agustin Zubimendik laugarren urtea egingo du aurten nagusien danborrada zuzentzen, eta hasiera batean zituen ametsak gauzatu ezinik jarraitzen du, gero eta jende gutxiagok hartzen baitu parte. Beste urtebete egingo omen du eta gero uzteko asmoa azaldu du, egoera zuzentzen ez bada behintzat. Hala ere, danborrada kalean izango dela esan digu, “eta hori da orain garrantzitsuena”.*

### ❑ Azken urteotan gorabeherak izan dira danborrada antolatzeko. Aurten nola joan da guztia?

Gero eta okerrago. Urtero jende gutxiagok hartzen du parte, eta aurten oso juxtu ibiliko gara. Gainera, entseiuak ezin ditugu behar bezala egin, ia baliabiderik ez daukagulako. Banda ez da azken entseiuetara arte azaltzen, eta musika ekiporik ez daukagu. Baflea haurren danborradako antolatzaileei eskatu behar izaten diet. Hori bai, aurten danbor berriak izango ditugu. Udalak 500 mila pezeta gastatu ditu danborrak eta barrilak erosteko. Danbor berriak izango ditugu baina jotzeko jendea faltan.

### ❑ Jendeak zergatik ez du parte hartu nahi?

Ez dakit, baina gauza nola dauden ikusita dena bertan behera uzteko gogoia ematen dizu. Zuzendari hasi nintzenean antzerako egoera bat gertatu zen. Orduan inork ez zuen antolatu nahi eta nik hartu behar izan nuen ardura hori. Bi aste baino ez nituen eta orduan nire helburua danborrada kalera ateratzea izan zen besterik gabe. Gerora, pieza berriak sartzen saiatu naiz, gauzak pixkanaka hobetzeko asmoa nuen, baina jenderik gabe gelditzen bazara, alperrik da.

### ❑ Non dira garai batean aritzen zirenak?

Duela urte batzuk urte askotan ibilitako hiruzpalau koadrilak utzi egin

zuten, eta ordutik hona etorri da beheraldia. Orain danborradako zaharrenak 25 urte ingurukoak dira. Lehen koadrila bakoitzetik kopuru mugatu batek jo zezakeen, eta zaharrenak haserretu egiten ziren 16-17 urteko gazteak sartzen baziren beraiei lekua kenduz. Orain 17 urtekoak erakartzea ere zaila egiten zaigu. Hala ere, ia denak behin baino gehiagotan jotakoak dira, eta nahiz eta entseiu gutxi egin ditugun, piezak ezagutzen dituzte eta ongi jotzen dute.

### ❑ Beraz, ez da pieza berririk izango aurten.

Ez, piezak eta ibilbidea betikoak izango dira. Aurreko urteotan zenbait pieza berri jo izan ditugu. Donostiako

**ERTZ** informatika



ORDENAGAILUAK  
CD-ROM  
INTERNET



*orain beheko plazan!*

Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 143395

**expert**



**ELEKTROGAILUAK**

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6

Tel. 861078



danborradakoak kentzen saiatu naiz eta Zumaia-koak sartu nahi izan ditut, hori aukera egiteko badagoelako. Haurren danborradan asko landu dituzte bertako piezak eta ni nagusien danborradan sartzen saiatu naiz. Adibidez, Gora Zumaia!, Porrusalda eta Polka ez ziren jotzen duela urte batzuk. Baina aurten ezinezkoa izan da ezer berririk sartzea, ez dugulako denborarik izan.

### ■ Datorren urtean gauzak okerrera jarraituz gero, zer gertatuko da?

Ez dakit, baina Agustin Zubimendik beste urtebete egingo du eta kitto. Nire asmoa da lekukoa Isaaki pasatzea, baina gauzak ez badira aldatzen ez dakit berak hartu nahiko duen ere. Ni zuzendari hasi banintzen danborrada kalera ateratzeko izan zen. Hobeto da danborrada ateratzea ez ateratzea baino. Baina guzti honek asko erretzen du, eta jendeak ez badu erantzuten ezin da gauza handirik egin. Askotan badirudi erreguka ibili behar zarela, eta horrek asko erretzen du. Danborradak San Telmoetan jende gehien biltzen duen ekitaldia da, baina gero eta jende gutxiagok hartzen du parte. Ehundaka jende parte hartu nahi izan du danborradan, eta orain 50 bat baino ez gara.

### ■ Arrazoirik aurkitzen al diozu horri?

Ez dakit Zumaian zer gertatzen den, baina ez dago danborradan parte hartzeko gogorik. Azpeitian edo Donostian danborradan parte hartzeko desiratzen egoten dira, eta agian okerrago joko dute, baina ilusio handia egiten die, eta horrek balio du. Zumaian ez dago horrelakorik, ez danborradarako, ez arraunerako, ez ezertarako. Gauzak ongi doazenean bakarrik mugitzen da jendea. Iaz adibidez, Julene Azpeitia ikastetxean egin genituen azken bi entseiuak, gaueko hamarretan. Ba, inguruan bizi den norbaitek udaltzainei deitu zien zarata gehiegi ateratzen genuelako. Agian ez da ordu aproposena, baina jende askok ez du beste aukerarik, eta azken bi entseiuak baino ez ziren izan.

### ■ Guzti hau entzun ondoren, aterako al da danborrada?

Danborrada kalean izango da, nola edo hala. Jende gutxi izango gara, baina dudarik ez izan jo ongi jotzen dugula. Egun horretan gainera, dena ahaztu egiten da, danborradak beti sortzen baitu zirrara berezia.

◀ **GORKA ZABALETA**

### Danborradaren egitaraua (11etan hasiko da)

Aita Mari Auzategia	<i>Diana</i>
Pasakallea	
Patxita Etxezarreta	<i>Retreta</i>
Pasakallea	
Txomin Agirre Kaia	<i>Hau dek hau</i>
Pasakallea	
Amaiako Plaza	<i>Kaldereros</i>
Jo gabe, Larretxotik San Telmo kalera	
San Telmo kalea	<i>San Telmo</i>
	<i>Gora Zumaia</i>
	<i>Porrusalda</i>

#### Atsedenaldia

Pasakallea	
Kofradiaren aurrean	<i>San Telmo (12etan)</i>
	<i>Gora Zumaia</i>
	<i>Porrusalda</i>
	<i>Retreta</i>
	<i>Polka</i>
	<i>Txuri Urdin</i>
	<i>Hau dek hau</i>
	<i>Kaldereros</i>

#### Pasakallea

Beheko Plaza	<i>Retreta</i>
	<i>Kaldereros</i>
	<i>Gora Zumaia</i>
	<i>San Telmo</i>

Amaiera



Amertze

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 861707

Galdona



Mendara marinela, 1 Tel. 861117 -143346  
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330



TABERNA  
Juan Belmonte 5 TIF: 86 10 57

# Leihoaren ...ahotik

Bata oraindik pausatu ez denean, bestea jaso. Denbora tarte motza egiten du oin bakoitzak lurra ukituz, eta zenbat eta azkarrago joan, orduan eta gutxiago. Korrika ari gara.

Esfortzu nekagarrian, izerdia ere ez dago kontentu, eta martxari jarraitu ezinik atzera geratzen da ttantaka-ttantaka. Zangoek jarraitu egin beharko, zer erremedio! Baina merezi ote du hainbesteko lanak, berriz irteerako tokira itzultzeko? Ez al da alper xamar sakrifikatzea? Etxetik irten, etxean ibili eta etxean bertan amaitzeko, zenbat izerdi, zenbat esfortzu. Ixilik, hauspoa berotuta, badugu nahiko lan arnasari buelta ematen. Hitza eskatzen duen ixiltasuna, hitza eskatzen duen herria. Gure hauspoek balio izan dezatela euskararen sua indartzeko.

Zumaian bada itzaltzeko arriskurik ez duen su bat. Aste Santua hurbiltzearekin batera lasterka hasten gara guztiok, sutondora iristean nahikoa indar izan eta gainetik jauzi egin ahal izateko. Lasterketa oso berezia da. Kilometroak beharrendu orduak nahi ditugu ahalik eta azkarren egin, espazio bat korritu beharrendu denbora tarte bat igaro. Eta azkenik,

lasterketa guztietan bezala, iritsi gara helmugara. Irteeran dugu helmuga. Iritsi eta sssspum! irteerarako deia, bota dute txupinazoa.

San Telmotako suaren gainean egin dugu jauzi. Herriak su hartzen du, eta gu bitartean aidean gabilta, hegan, suaren gainean dantzan.

Peruk jada lanak ditu aireratzen, baina nola edo hala, saiatuko naiz ni ere. Ermitatik behera nire gurgildun aulkian, behar adina abiadura hartuko ote dut, txupinazoa jotzearekin batera frenuari eragin eta iieeup, banoala! Bost axola lurreratzea nolakoa izango den, horrek ez nau kezkatzen. Irauten duen artean gozatzen badugu, zer gehiago eska genezake? Blusa eta painueloak jantzi eta irten gaitezen kalera, ezin dutenak beti gogoan, udaberriak urtero ekartzen digun opari honetaz gozatzerara, eta erakutsi zumaiarrendu korajia. Beste parranda batekin gairiditu biharamuneko ajia!

Opari ederrak dakartza bai udaberriak berarekin, jai giroaz aparte ere. Egunaren luzatzea, Lorentzo lotsagabeago bat, bizitza, berde, gorri... kolorez jantzen gaitu. Larrosa eta klabeleduneko jantziak. Hala

estalita ageri dira Talai Mendiren magalak, geranioz Kontxa inguruko jardin txukunak, eta tulipanez Frishland-go lur sailak. Baina kardoak ere egiten du bere agerpena garai honetan, eta aurtengoan Britainia Handia hautatu du. Ingalaterrako "loreetan" kardoak gailendu da, kardoak josi da Londresko Loreen Ganbara.

Gepetoren seme gezurtia gogoko nuen txikitari, baina hara zer nolako alproja suertatu zaigun. Egindakoak eginda, azala behar du pertsonak harro egoteko! Egurrezko egin zuen aitak, beste esplikaziorik ez dago. Eta suarekin dabilenari ezagun da zer gerta dakioken, zurezko izanez gero gainera, are eta errazago. Erre.

Ketan daude Madrilgo kloaka ilunak ere. Bateko eta besteko suteak itzali nahian dabilta, eta ez dute ohartu nahi etxea sutan dutenaz. Ur baldearekin sua non piztuko zain, eta bitartean ipurdia sutan, gizaixo N.A.T.O.ak.

Korri egin dezagun, eta ea kixkali baino lehen irekitzen dugun askatasunaren iturria, egarri baikara.

**PERU BERAZADI**

 **GAZTE, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA  
**ARGIDENDA**

*Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrikari eta herriko argietan*

Izaga, 1 behea

Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24  
Tel. mugikorra: 908 -143409

 **KAFETEGIA**  
**GAROA**  
JATETXEA

**TXOMIN AGIRRE KAIA**

TEL. 943 86 21 81



**Mari Karmen Aizpurua**

Ni ez nago ados. Hau jubilatuontzat da, eta hemen gazteak sartuko balira, kanpoan utziko gintuzkete.

# hogarreko lokal batean diskoteka jarriko balute?

**Gazte-leku baten faltan, jubilatuak beraiena konpartitzeko prest ote leudeken jakin nahi izan dugu.**



**Concepcion Garcia**

Ez dut uste hau denik diskoteka ipintzeko tokirik egokiena, ezta gu ere hortaz jarduteko pertsona egokienak. Beste batzuekin hitz egin beharko zenukete.



**Manuel Alvarez**

Gazteontzat egokia izango litzateke. Eta guretzat ere, festa eta juergatarako ongi legoke. Ados nago.



**Argimiro Hernandez**

Niregatik edozein eratako kluba jartzen badute ere, baita monjena ere, bost axola. Baina diskotekak batez ere helduontzat behar luke, ez baitakigu dantzan. Nonbait ikasi beharko dugu, ezta?



**Josefa Hidalgo**

Gu gazteoi laguntzeko prest gaude, eta lokala behar baduzue bultzatuko zaituztegu. Baina ez dut uste hau denik tokirik egokiena



**Clemencia Sanchez**

Bazkide egin nintzenetik behin bakarrik dantzatu dut, eta gustatuko litzaidake gehiago dantzatzea.



**Mari Asun Barinaga**

Diskoteka jarriz gero hogarra asko desfiguratu litzateke. Gainera honen ordutegia kontuan izanda, diskotekak ez luke erresultatuko.

## GIZARTEKINTZA zentru soziala

### KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Amaiako plaza z/g

Tel. 860959



*Errepidetako marrak dira hamaika bateko, hamaikak bat egiten dute urrunago joateko...*



*...Batekoak beti batuz, Korrikan goaz gure bidea gertatuz, pauso bakoitzeko hitz bat asfaltoan txertatuz...*



*...Ni eta zu, zu eta ni, bat eta bat bi, gara bi. Goazen korrika, marrari segika! Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskeraz...*

*... aurrera-atzera-haruntz-honuntz joatean, hamaika herri lotu ditu korapilo batean...*



*...errepidetako marrak dira hamaika bateko, hamaikak bat egiten dute urrunago joateko...*

  
**Zumaia Hotela**  
 Alai Auzategia  
 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
 TEL: 943 14 34 41  
 FAXA: 943 86 07 64

 **ZURICH**  
 ASEGURUAK  
 Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169

 **HORBEL**  
 PAPER-DENDA  
**HELBIDE BERRIA!!**  
 Basadi, 7 behea  
 Tel./Faxa: 943 14 34 53





## Goazen kontzeptu batzuk argitzera !

Badirudi, teknologi berriak eta ingurugiroa etsaiak izan behar dutela, edo gutxienik horrela ulertu izan dugu, baina azken bolada honetan gauzak aldatzen hasi direla dirudi eta teknologia berriek eta ingurugiroa helburu berdinen alde hasi direla lanean.

Kontuan izan behar dugu gure gizartean "la pela es la pela" izaten jarraitzen duela, eta horregatik ingurugiroaren defentsa helburu ekonomikoen atzetik jarraitzen duela egoten. Hala ere gure esku dago egoera honi buelta ematea eta ekonomi faktoreen maila berdinean ezartzea ingurugiroak merezi duen babesa.

Pertsona bakoitzaren konpromisoa ezinbestekoa da ingurugiroa babesteko helburuan, zuetako bako-

tzaren konpromisoa. Oso ongi dago berziklatzea, eta baita orain jarriko den edukiontzi berria ere, baina benetan irabazi behar dugun guda kontsumismoaren kontrakoa da. Nola? Gure zaborrak murriztuz.

Gure eguneroko bizitzan, zenbat eta gauza gehiagoren jabe izan, zenbat eta gauza berriagoak erosi, eta hitz batean gero eta kontsumo gehiago gero eta zoriontsuago biziko gara. Baina inork ez ditzala aipatu "hirugarren mundu"-ko gure anaiak, horrela ez baikara beraietaz gogoratuko, haiek ez baitute ez kotxe modernorik, ez itsasora begira dagoen jauregirik, ez merkataritza zentruarik eta kasu askotan jatekoa falta bazaie ere, guri ze inporta zaigu ba?

Gure bizitza ipar hemisferioan emango dugula eta ze inporta zaigu hego hemisferioan haurrak lanean egotea? Herri haietan kutsadurataz ez arduratzea? Gure lan desatseginenak haien esku uztea? Gu ez al gara ba mundu honetan lehenengo mundua dioten hori?

Horregatik kontsumoak ez gaitu batere arduratu behar, eta oraindik eta gutxiago ere sortzen ditugun zaborrek.

**GORA GURE LEHENENGO MUNDUA, ETA JARRAI DEZAGUN GURE ZABORRAK HEGO HEMISFERIOKOEI BIDALTZEN!**

P.D.: Agian gure zaborretatik bizitzea lortuko dute, ezta?

*Gure txokoa*

• taberna •

*kaxuelita eta pintxo ezberdinak*

San Pedro kalea

English School  
**Harvest**

San Jose, 11 bis Tel. 143334


**IHINTZA**  
taberna

Tel: 860472  
Ortega y Gasset, 5

# CAR TOON





HISTORY






Z Z z i i i U U u ! ! ! !



Gaur ARRATSALDEAN GERTATU DA EZBEHARREKO GERTAKIZUNA ; WARNER BROSS ENPRESAK NEVADAKO DESERTUAN DITUEN FILMAZIO EREMUEAN "COYOTE" EZAGUNAK , "CORRECANINOS" AZKARRA BORTIZKI ERASOTU DU ; LEKUKOEK DIOTENEZ , EZ DA HAU LEHEN ALDIA ERASOTZEN SAIATZEN DENA. COYOTE ATXILOTUA IZAN DA NEVADAKO POLIZIAREN BITARTEZ ...



BOOM!



WARNER BROSS-EN BOZERAMALEAK DIOENEZ, HONELAKO GERTAKIZUNEK EZ DUTE ENPRESAREN IRUDIRAKO ERAGIN ONIK IZANGO; HALA ERE ZIHURTATU DU NEURRIAK HARTUKO DITUZTELA "COYOTE" EZAGUNAREN AURKA. BAINA...  
 .... ( ... CAGÜENLALETXE! BAZAN ORDUA! ... OLLOKA USTELHORREK ASTINDU PAREAT JASOTZEKUA! DIOOOSSS! )



© 1999 Dani ■ ♪

## Lizarra- Garaziko Akordioa, hutsik egin ezin duen apostua

*Ramon Ostolaza (elkarri),  
Agustin Letamendia  
(Gestorak), Jose Antonio  
Letamendia (ESK), Arritxu  
Unanue (PNV), Pello Enparan  
(LAB), Itziar Mendizabal  
(EA), Zigor Etxabe (HB),  
Balentxi (ELA) eta Idoia  
Arrizabalaga (Senideak)  
astero bildu ohi dira Lizarra-  
Garaziko Akordioa bultza-  
tzeko herriko taldean.  
Akordioak, ETaren tregua-  
rekin batera, goitik behera  
aldatu ditu euskal politika-  
gintzaren bilakaera eta  
dinamikak. Balorazioak  
gora-behera, eztabaidaezina  
da Akordioak euskal  
gizartean piztu duen  
interesa, eta guri ere hainbat  
galdera sortarazi dizkigu.  
Itziar, Balentxi eta Idoiak  
ezin izan dute zitara azaldu,  
baina gainerakoek luze eta  
zabal erantzun digute, eta  
elkarrizketa zena tertulia  
politiko bihurtu da kasik.*



Nonbaitetik hastearren, bake prozesua eguneroko aktualitate izanik edonondik hasi baikintezke, Lizarra-Garaziko Akordioaren ekarpen nagusietaz galdetuz ekin diogu tertuliari, eta goi maila nahiz herri mailan abertzaleen artean sortu den elkarlana aipatzen dute lehenik. “Gu hemen batuta, eta astero-astero bilerak egiten ikustea, hori ia badek” dio Joxe Antoniok besteen irribarrean artean, eta “ez da gutxi ez” Arritxuk. Elkarlan giro hau, berebat, hainbat fruitu ematen ari dela ikusten dute. Batetik kaleko tentsio giro hotz hori apurtu du, bestetik ilusioa ekarri du, guztien artean gatazkari irtenbide bat emateko posibilitateak sortu duen ilusioa, eta hirugarrenik arazo politikoa agerian utzi.

“Demokrata-biolento dualidadetik abertzale-espainolista dualidadera pasa gera” esplikatzeko du azken puntu hau Ramonek, “eta aldaketa honek arazoaren gakora garamatza, politikaz hitz egitera. Lehen politikaz etzan sekula santan hitzegiten, beti ETAz

baino etzan hitz egiten. Orain hasiak gera Euskal Herriak bere burua nola nahi duan, konbibentziarako arau egokiak zein dian eta abar mahai gainera ateratzen”.

Denak ados daude, eta hitzak zirikatze deabruaren abokatuarena egitea tokatzen zait. Gatazka politikorik ez dagoelako tesia aipatzen diet, euskal gizartearen borondatea hauteskunde bidez islatu eta gauzatu izan dela defendatzen duena.

“Botua eman dezakegu, baina botu horrek inoiz ez dezake balio Euskal Herriaren marko politikoa egokitze, egungo sistemaren aldaketa hoiek beti Madrilgo parlamentuaren esku baitaude. Bestalde Estatuak nahi adina errekurtsio ditu gai garrantzitsuenetan geure botuekin hautaturiko alderdi politiko eta sindikatuek hartzen dituzten erabakiak atzera botatzeko. Beraz, Estatuaren hitza da balio duena eta ez euskal gizartearena, eta herri bezala aurrera egiteko bideak ixten dizkigu honek behin eta berriro” berotzen da Pello.

**“Demokrata-biolento dualidadetik abertzale-espainolista dualidadera pasa gara eta aldaketa honek arazoaren gakora garamatza, politikaz hitz egitera. Lehen politikaz etzan sekula santan hitz egiten, beti ETAz baino etzan hitz egiten. Orain hasiak gera Euskal Herriak bere burua nola nahi duan, konbibentziarako arau egokiak zein dian eta abar mahai gainera ateratzen” dio Ramonek (Elkarri).**

“Kontua da herri honen eraikuntzan 1-X-2 edozein jarrita ere badakigula partidua zeinek irabaziko duen: Estatuaren interesekin bat datorrenak. Hori ez da justua, eta injustizi horrek oztopoa eta borrokak ekarriko ditu beti. Honen aurrean Lizarra-Garaziko Akordioak proiektu desberdin guztiei irekita egonik euskal gizartearen gehiengo eta gutxiengoan jokuan oinarrituriko berdintasunezko lehia aldarrikatzen du. Eta hori da irtenbide posible bakarra” segitzen du Joxe Antoniok.

Denak batera hasten dira hizketan jarraian, eta gaia aldatu beharko dugu ordena pixka bat jartzeko.

### Herriko taldeak

Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoak herrietako jendearen harremanetan ere izan ditu bere eraginak. Zenbaitetan arazo politikoa arazo pertsonal bihurtu da eta hortik ezinikusiak, kalean kasorik ez egiteak eta gisa honetako egoera penagarriak sortu izan dira. Goi esferatan Lizarra-Garaziko Akordioaren inguruan sortu den elkarlanerako giroak ordea hitz egiten eta elkar onartzen hasteko parada ekarri du herrietara ere.

**Pello (LAB): “Botua eman dezakegu, baina botu horrek inoiz ez dezake balio Euskal Herriaren marko politikoa egokitzeko, egungo sisteman aldaketa hoiek beti Madrilgo parlamentuaren esku baitaude”**

Zumaian, Abenduaren 10ean Elkarrik bake prozesuaz hitz egiteko antolatu zuen bilera irekian erabaki zen Akordioa bultzatzeko talde iraunkor bat sortzea. “Taldea iraunkorraren ideia espontaneoki sortu zen” dio Ramonek. “Orain hasiak dira goitik, Akordioaren sozializatorako, herrietan taldeak sortzeko agindua pasatzen, baina guk lehenengo aldiz juntatu ginan hartan ikusi genuen beharra. Lizarra-Garazik ilusio handia sortu zuen jende askorengan, aspalditik ikusten zen hitz egiten hasi eta gauzak beste modu batera egiteko beharra, eta momentua zala ikusi genuen. Orduetik

hemen gabilta bilerak egin eta bilerak egin” bukatzen du.

Garai zaharretako tirabirek taldearen elkarbizitzarako sekularik utzi ote dien galdetzerakoan “nik behintzat sekuelak 36ko gerrakoak bakarrik dauzkat” botatzen du broman Arritxuk. Ramonek serioago magnolio aurreko kontzentrazioena oso egoera gogorra izaten zela gogoratzen du, baina Zigorrek euren artean inoiz tirabira pertsonalik izan eta ondo konpontzen direla dio. “Alderdi bakoitzian egongo dira besteanganako mesfidantzak, eta baita gu baino jende erreagorik ere. 6 hilabetetan ezin dira hola ahaztu batetik eta bestetik eman izan dianak, baina kontua da aurrera ondo egiteko bide bakarra elkarrekin ondo konpontzea dela, eta horretarako bakoitzak zoze jarri beharra dago” dio Arritxuk.

“Hain zuzen ere” heltzen dio hariari Zigorrek, “militantziek geure arteko harremanak estutzeko sortu dira herriko taldeak. Gero jendea informatu eta ekimen bateratuak antolatuaz geure arteko entendimendu eta errespetuzko erlazio hau herriko bizitzara zabaldu nahi genuke, bake prozesua aurrera eramateko

beharrezkoa izango den elkarriketa eta parte-hartzea posible izan dadin”.

### Aurrera begira

Aurrera begira Madrilgo gobernuak oraingo inobilismoarekin jarraituko duelakoan daude. “Beraiek dute boterea eta komodidade guztia beren posturan gu nazkatu zai egoteko” dio Agustinek. “Gure arteko batasuna haustea da beren helburua eta horretarako errepresioa erabiliko dute ezker abertzalearen aurka ea urduri jarri eta hartutako bidea uzten duen, eta enpresarien mundua beldurtzen saiatuko dira PNV desorekatzeko,



**ilarzi**  
Alai auzategia, 2  
Tel. 943 14 33 24



**INPERNUPE  
ELKARTEA**  
Erribera kalea Tel. 861523



**ILEAPAINDEGIA  
IRUITZ**  
San Telmo, 12  
Tel. 860760

**ITSASKI**  
**SUPERMERKATUA**  
Urumea kalea z/g  
Tel. 143058



**ITSY-BITSY**  
SCHOOL OF ENGLISH  
Ingeleseko klaseak maila guztietan  
Cambridgerako azterketak  
Basadi, 2 Tel. 862373



**ileapaindegia**  
**IZETA**  
Urumea, 6 Tel. 862083

**Arritxu (PNV):**  
**“Alderdi bakoitzian egongo dira bestean-ganako mesfidantzak, eta baita gu baino jende erreagorik ere. 6 hilabetetan ezin dira hola ahaztu batetik eta bestetik eman izan dianak, baina kontua da aurrera ondo egiteko bide bakarra elkarrekin ondo konpontzea dala, eta horretarako bakoitzak zoze jarri beharra dago”.**



egiten ari diren bezala Europatik kontzertu ekonomikoa baliogabetuaz adibidez” jarraitzen du Pellok.

Ondoren judikatuta, komunikabideen papera, “Goebels asko dago hemen” dio Pellok, Europa mailan Madrid egiten ari den presio diplomatikoa eta beste hainbat gai atera dira mahai gainera, interesgarriak izan arren erreportaje xume honetan kabitzen ez zaizkigunak.

Sintetizatu nahian Espainiako gobernuak bakerik nahi duen iruditzen al zaien galdetu diegu zuzenean. Baietz dioten bakarrak Pello eta Ramon dira. “Pax Romana bat” dio lehenengoak “Izarraizkoa bezalako pakea” bigarrenak. Azkenean ados jartzen dira: ETA desagertzea nahi du gobernuak, baina arazo politikoari ez dio heldu nahi.

Espainiako gobernuaren aldetiko borondate falta horrekin arazoa konpontzea posible ote den planteatu diegunean baikorrago azaltzen dira.

“Estamos en el capullo. Oraindik ere aldaketa haundiak eman behar dira, baina herria mugitzen baldin bada eta norabide egokia mantentzen bada lehenago edo geroago garestiegia suertatuko zaie beraien posizioa” dio Joxe Antoniok. “Konturatzen ari dira herria mugitzen ari dela, urtarrilean Bilboko manifestazioan gertatu zen bezala, eta hortik atera beharko dituzte beren kontuak” segitzen du Arritxuk.

Batasuna, ilusioa eta beharra aipatzen dituzte Lizarrako apostuaren kapital positibo nagusi gisa. “Asimilatuta daukagu herri honek irtenbide bat behar duela horrenbeste urteko

gerraren ondoren. Arazoa geuk dugu eta interesatu haundienak geu gera, eta ezin dugu aukera hau galdu badakigu eta bestela zer dagoen” aipatzen du Zigorrek.

“Prozesua luzea izango da, elkarriketek etorri beharko dute, eta elkarriketa horietan bakoitzak bere eskaintzak argitu beharko ditu azkenik herriak erabaki dezan, baina oraindik lehenengo pauso batean gaude: arazoaren irteerako minimoen eskema bat eskaintzen dugu, eskema posible bakarra, goazen hau eskatzera” dio Ramonek.

**Zigor (HB):** **“Asimilatuta daukagu herri honek irtenbide bat behar duela horrenbeste urteko gerraren ondoren. Arazoa geuk dugu eta interesatu handienak geu gera, eta ezin dugu aukera hau galdu badakigu eta bestela zer dagoen”.**

Agerikoa denez erronka garrantzitsua da aurrean daukaguna, gauza asko hitz egin behar dira oraindik, eta beste hainbeste egin, bai euskal gizarte mailan eta geure eskalara jaitziaz baita Zumaian ere. Gaurkoz ordea bukatu beharrean gaude. Lizarrako trenaren hurrengo geltokia apirilaren 18an herrian ospatuko den Lizarrako Akordioaren eguna.

◀ **ANTXOKA AGIRRE**

Joseba Ossa

**ITZULPENAK**

euskara . gaztelera . katalana  
 ingelesa . frantsesa

Tel./Faxa: 148306  
 E-mail: bakun@encomix.es

julio curiel



Gizonezkoentzat  
 ileapaindegia

Erribera kalea, 23



**Loredenda**  
**JEMAR**

**LANDAREAK . LOREAK**  
**HAZIAK . ZERAMIKAK**

Erribera, 1

Tel. 860375



'Lizarra-Garaziko Akordioaren sorrera, garapena eta etorkizuna' izenburuko hitzaldia eman zen Oxforren joan den martxoaren 24ean. EAtik Jagoba Larburu, PNVtik Markel Olano eta HBtik Xanti del Val izan ziren hizlariak, Akordioa bultzatzeko sortu den Talde Iraunkorrekoak, eta bake prozesuaren garapenerako oinarritzko klabe batzuk eman zituzten.

78an Estatutuari batzuek baiezkoa eta besteek ezezkoa eman ondoren urte hauetan banatuta egon diren abertzaleen bi aldeetatik biolentodemokrata kontzeptuetan oinarrituriko politika Euskal Herriaren proiektu politikoa erabat antzua zela ikusirik, dinamika honekin hautsi, sortzen ari ziren fraktura sozialak gainditu eta gatazkari irtenbide bat emateko saiakera moduan esplikatu zuen Jagobak Akordioaren sorrera. Arazo politikoek konponbide politikoak behar dituztela ere azpimarratu zuen.

Ondoren Markelek hartu zuen hitza. Honek Akordioaren testua irakurtzearekin honen izaera demokratikoa eta bakebiderako baliagarritasuna argi gelditzen direla azpimarratuaz, zuzeneko komunikazioa defendatu zuen kanpaina mediatiko toxikotzaileak saihesteko antidoto gisa. Zentzu honetan lanerako gutxieneko azpiegitura bat, bulegoa, liberatuak eta talde iraunkor bat, martxan badagoela jakinarazi zuen, kartelak, pinak eta testua jasoko duten triptikotan oinarrituriko publizitate kanpaina iragarri, eta Akordioaren aurkezpenak hemengo herrietan ez ezik Estatuan eta Europako hainbat hirietan ere egingo direla aipatu zuen. Sinatzaile ez direnekin harreman pribatuak eta elkarriketak badaudela ere argitu zuen. Harreman hauek ere oso garrantzitsuak zirela esan zuen, eta publikoki ezagutaraziko ez badira ere, hainbat bilera daudela deituta. Bukatzeko, apirilaren 10ean Akordioaren aldeko manifestazioa eta

## Martxoaren 24ko hitzaldia

12an Akordioaren aldeko ordubeteko lanuztea izango direla iragarri zuen.

Xantik abertzaleon izerditik ez bada etorkizunean ez dela lorpenik izango azpimarratu zuen, Estatuak abertzaleoi inoiz ez digula ezer doan emango. Jarraian Akordioaren etorkizunaren hipotesi posibleak, guztiok neurtu eta baloratu beharrekoak bere hitzetan, azaldu zituen:

- a) Lizarra haustea.
- b) Aurrera jarraitu baina lorpen gutxi izatea.
- d) Lorpenak izatea. Dauden proiektu politiko guztiak posibilitatzen dituen sistema.

Azkenik, garai batean desegindakoa berregiteko, printzipiokeriak baztertu eta bateratuak izan daitezkeen ekimenak bultzatu behar direla, eta aktibismoan erori gabe ekimen kualifikatuak bilatu behar direla seinatu zuen.

◀ A. A.

**HARATEGIA URDAITEGIA**  
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

taberna **JUSTA**  
eguneroko bazkariak  
Erribera kalea, 20

**KABI**  
TABERNA - ZUMAI  
Tel. 143379

## Lizarrako adierazpena

• **EUSKAL HERRIRAKO BALIZKO APLIKAZIOA.** Irlandako bake prozesu eta akordioaren ezaugarriak kontuan izaki, Euskal Herriak nozitzen duen gatazkak ere konponbidea izan dezakeelakoan gara, beti ere jarraian aipatzen diren jokamoldeak errespetatzen diren neurrian:

• **IDENTIFIKAZIOA.** "Euskal arazoa" izenez ezagutzen duguna jatorri eta izaera politikoa duen gatazka historikoa da, bertan Espainiako eta Frantziako Estatuak inplikaturik daudelarik. Beraz konponketak ere derrigorrez politikoa izan beharko du.

Gatazkaren sorrerari eta jarraipenari buruzko ulermoldeak desberdinak izanik eta arazoa lurraldetasunetan, erabakiak hartu behar dituen subjektuan eta burujabetza politikoa adierazten denez, aipaturikoak konpondu beharreko oinarriko arazo bihurtzen dira.

• **METODOA.** Elkarrizketa eta negoziazio prozesu irekiaren bitartez bakarrik gorpuztu daiteke konponketa politikoa, inplikaturik dauden eragileak baztertu gabe eta euskal gizarte osoak parte hartuz.

• **PROZESUA.** Hasierako fasea. Elkarrizketa eta negoziazio prozesua, inplikaturiko eragileen arteko harremanen eta elkarriz-

keten bitartez lagundu daiteke, elkarrizketa prozesua gauzatu ahal izateko inplikaturik dauden eragileentzako gaindiezinak suertatu daitezkeen aurrebal-dintzak ezartzen ez badira.

Erabaki fasea. Bere baitan arazoaren zergatiak aztertzeo nahia eta konpromisoa daraman negoziazio eta konponketa prozesua, gatazkari lotuta azaltzen diren indarkeriazko adierazpenik gabe gauzatuko litzateke.

• **NEGOZIAKETAREN IZAERA.** Negoziazioak orokorra izan behar du, hau da, arazoa osatzen duten eta bere ondorio diren kontu guztiak aztertzen dituen eta haiei konponbidea ematen diona.

Ez dago agenda mugadunik. Honela, beraz, negoziazioa ez da hartu behar irabazi partikularren prozesu modura, arazoaren konponbide gisa baizik.

• **KONPONBIDEAREN GILTZARRIAK.** Esandakoak ondorengo suposatzen du: konponbidea erabakitzeko negoziazioak ez du bere baitan berariazko inposaketarik izango, euskal gizartearen aniztasuna errespetatu beharko du, proiektu guztiak erdiesteko orduan baldintza berdinetan kokatuko dira, Euskal Herrian demokrazia sakondu behar da -hau da, herritarrek Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa

izatea nahi duten beren hitzaren bitartez adieraziko dute- eta inplikaturik dauden estatuek erabaki hori errespetatu beharko dute. Euskal Herriak hitza eta erabakia izan behar du.

• **ONDORIOZKO ESZENA-TOKIA.** Konponbidea ekarriko duten erabakiek ez dute eszenatoki itxi eta behin-betikoa izango. Alderantziz; berari esker, Euskal Herriko herritarren tradizioari eta subiranotasun asmoei aukera berriak eskainiko dizkieten formula berriak kokatzeko moduko esparru zabalak eratzeko ahalegina egingo da.

Euskal Herria, 1998ko irailak 12

**AB, HB, EAJ-PNV, EA, IU, BATZARRE, ZUTIK, ELA, LAB, EHNE, ESK, STEE-EILAS, HIRU, GOGOIA, AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK, SENIDEAK, BAKEA ORAIN, ELKARRI, EGIZAN, HERRIA 2000 ELIZA, GERNIKA BATZORDEA, AUTODETERMINAZIOAREN BILTZARRAK.**



\* Eguneroko bazkaria  
\* Pintxo eta bokatak  
\* Koadrilentzako menu bereziak  
\* Kazuelitak eta plater konbinatuak

**kalari**  
Erribera kalea, 16  
Tel. 862517



• Depilaketa (beroa, epela)  
• Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa  
• Aurpegia edertzeko sendabideak  
• Gorputza edertzeko sendabideak  
• Lurrindegia  
• Solarium-a

**KUKUTZ**  
serigrafia

• kamisetak  
• txiskeroak  
• paperezko poltsak

Tel. 860569  
Baltasar Etxabe, 7





Azken urteotan ohikoa bilakatu da era honetako emaitzak lortzea, baina honek ez du esan nahi zailtasunik gabe erdiesten direnik. Alderantziz, beste taldeak urtero gero eta prestatuago daude eta irabaztea gero eta lan nekezagoa da. Urteak joan urteak etorri, Itxas-Gainekoak beti punta-puntan dabilta, bai Euskal Herriko probetan eta baita Espainiakoetan ere.

## Itxas-Gain Euskadiko txapeldun

*Itxas-Gain Zumaiako piraguismo taldeak ezin hobeto hasi du aurtengo denboraldia, izan ere Zumaian jokaturako lehenengo proban eta martxoaren 20ean Bidasoa ibaian egindako uskadiko Txapelketan garaipena lortu baitute taldeka.*

Aurtengo denboraldian ere babesle sendo baten faltan daude baina hala ere, batetik bestera ibiliko dira ahal duten lasterketa garrantzitsu gehienetan parte hartzeko asmoz. Zentzu honetan, dagoeneko lehenengo arrakasta handia lortu dute Euskadiko Txapelketa horretan, denboraldia hasi besterik ez denean egin.

Itxas-Gainek, bost puntu bakarrik atera zizkion Santiagotarrak Irungo taldeari. Emaitzei dagokienez, berriz, honako hauek izan ziren piraguista zumaian onenak: K-1 modalitatean, mutiletan, Imanol Atorrasagastik garaipena lortu zuen kadetetan, eta

junior mailan lehenengo bost postuetan Itxas Gaineko hiru piraguista sailkatu ziren: Iñaki Vita hirugarren, Abilio Blazquez laugarren eta Juan Mari Azpillaga bosgarren.

Emakumezkoetan berriz, kadetetan, Batirtze Letamendia bigarren iritsi zen helmugara eta Ester Eizagirre laugarren. Juniorretan, Ane Galarraga suertatu zen garaile, Maite Benito bi postu atzerago sailkatu zen eta Maite Garcia berriz, laugarren. Senior mailan aldiz, Naiara Gomez bigarren sartu zen helmugan eta bere atzetik sailkatu ziren Marijo Mendizabal eta Itziar Lopez. ◀

## Zesta puntan ere Euskadiko onena

Piraguismoan ez ezik, zesta puntan ere bikain dabilta Eustakio Adurriagak entrenatzen dituen mutilak. Martxoaren 6an kadete mailako Euskadiko Txapelketako finala jokatu zuten Unai Korta eta Imanol Lopezek Iparraldeko ordezkarien aurka Tolosan. Zumaiaiko bikoteak ez zuen inolako arazorik izan

eta erraztasun osoz gailendu zitzaizkien beren arerioei, 30-14ko emaitzarekin.

Martxoaren 20an berriz, Markinan jokatu zen jubenil mailako Euskadiko Txapelketa. Bertan, Ruben eta Txasiok osatutako bikote zumaianrak 30-23 irabazi zien Gasteizko ordezkariari.

Ortzi Goiri "Txasio" jokalariaik gainera, hemendik lasterrera profesionaletarako saltoa emango du. Manila hirira joateko asmoa du; orain dela pare bat hilabete Euskal Herritik bertara zestalari asko abiatu zen eta hauekin batera egongo da Txasio.



## Zumaiarrak ondo bateletan

Orain dela aste batzuk Zumaian Gipuzkoako Ligarako baliagarria den batelen estropada bat jokatu zen. Inguruko ontzi hoberenak izan ziren bertan eta nola ez, Aita Mari Arraun

Elkartekoak ere aritu ziren lanean, ondo gainera. Kadetetan irabazi egin zuten Orioren aurretik, infantiletan bigarren izan ziren helmugan Illunberen atzetik. Denboraldi guztian

bezalaxe, jubenil mailan ibili ziren pattalen, baina ez gaizki, sailkapeneko seigarren postua eskuratu baitzuten.



LIBRERIA

opariak

Aita-Mari auzategia, 17  
Tel. 861569



Juan Belmonte, 6 Tel. 860415



Loitz

\* Eskola eta bulegorako materiala  
\* Enkoadernazioak  
\* Fax publikoa  
\* Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422

## Preferentera igotzeko helburua- rekin

Zumaiako Endañeta  
Altzariak taldea  
denboraldi ona  
burutzen ari da



Ilintxaren kontrako azkenengo partiduaren ondoren, Zumaiako Endañeta Altzariak taldeak sendo jarraitzen du bigarren postuan eta igotzeko itxaropen guztiak bizi-bizirik mantentzen ditu. Denboraldi ona burutzen ari da eta Joseba Alberdi entrenatzaileak adierazi duen bezala, "dudarik gabe orain helburu nagusia igoera lortzea da". 1999. urte honetan oraindik ez dute partidu bakar bat ere galdu.

Taldeak denboraldia ondo hasi zuen, baina lehenengo itzulia ez zen irten entrenatzaileak uste zuen bezala, "14 partidutan 28 gol sartu zizkiguten, bi partiduko eta horrela, jakina, ezin zen jarraitu". Gabonetan Ligak geldiene bat izan zuen eta orduan joku sistema eta gizon aldaketa batzuk egin ziren eta orain arte bigarren itzulian egindako lanari begiratuz gero, hobekuntza handia izan dela zalariz ez dago. "Oso gol gutxi jaso ditugu eta batez ere atzealdean segurtasun handiagoa dago".

Orain pare bat asteko atsedendia dute jokalariek, zumaiarrei oso ondo etorriko zaiena, izan ere taldea fisikoki juxtu xamar dagoela baieztatu du Alberdik. Atsedendia pasatu ondoren Ligako azken txanpari ekingo diote taldeek eta zumaiarrek dituzten partiduak oso gogorak izango dira, goiko postuetan dauden taldeetatik beharbada gogorrenak. Dena den, entrenatzailearen esanetan "nahiago det ekipo on hoiere kontra jokatu erdipurdikoen aurka baino".

### Partidu erabakigarria

San Telmotako errepikapenetan, ligako liderraren aurka jokatu dute zumaiarrek etxetik kanpo, Seguraren aurka hain zuzen ere. "Partidu erabakigarria izango da hau dudarik gabe. Irabazten badugu izugarritzko aurrerapausoa emango dugu eta berdinketa bat ere ona da. Kontua ez galtzea da, ze bestela beraiekiko dugun diferentziaz gain, gol kopurua ere beraien

aldekoa izango da". Neurketa honetan eta etxean Amaiak Baten aurka lortzen diren emaitzekin, "ia erabakita geratuko dira goiko postu horiek".

Igoera postu horietarako faboritoko Segurako taldea ikusten du Joseba Alberdik, "teorian norgehiagoka errazena dituelako eta gure kontrako partidua ere etxean duelako. Beren partiduak ikustera ere jende asko joaten da. Nire ustez beraien eta gure artean egongo da kontua". Elgoibar pixka bat okerrago ikusten du eta Zarautz nahiz Amaiak Bat taldeak ere kontuan hartu behar dira, puntu gutxira baitaude.

Partidu gogorak dituen arren, Zumaiako Endañeta Altzariak taldea oso motibatuta ikusten du entrenatzaileak, "gogo askorekin ikusten det jendea, batez ere bere buruarengan konfiantza handiarekin. Ikusiko degu zer gertatzen den hemendik amaiera arte, baina guk igotzeko gogor borrokatuko degu"



MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomaturia

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160  
ZUMAIA

# Trapaia tabernak Basterrikalderi egingo dio aurre plaieroetako finalean

Kopan berriz Kabi Taberna taldeak Xolskaerren aurka jokatu du

*Aurtengo plaieroetako txapelketa bere azken txanpara iritsi da. Hilaren 17an, San Telmo jaietako errepikapenetan, Ligako eta Kopako finalak jokatu dira Itzurungo hondartzan.*



Ligan, Azkoitiko Basterrikalde taldea eta etxeko Trapaia Taberna arituko dira lehia bizian garaipenaren bila. Biek era oso ezberdinez lortu dute azken partidua honetarako sailkapena. Azkoitiarrek majo sufritu behar izan zuten finalerdietan iazko txapeladunen aurka, Hiru Ezkurren aurka hain zuzen ere.

**hilaren 17an  
jokatu dira txapel-  
ketako finalak**

Bien arteko neurketa oso orekatua suertatu zen. Hiru Ezkur taldean jokalaria bat baino gehiago falta zen eta honek izan zuen eraginik; kanpotarrak aldiz, gogo biziz atera ziren irabaztera eta markagailuan aurretik jarri arren, partidua amaierara berdinketarekin

heldu zen. Penalti jaurtiketek erabaki zuten kanporaketa azkoitiarren alde.

Ligako bigarren finalerdian Trapaia Tabernaren esperientzia erabakigarria gertatu zen, Ederki Herri Biltokia taldearen kontra jokatu norki norki. Azken emaitza 2-0ekoa izan zenezumaiarren alde.

## Kopa

Kopan berriz, Xolskaer eta Axier Kirolak taldeen arteko partidua erabakitzeke ere penalti jaurtiketetara joan behar izan zen. Axierrekoak oso gaizki ibili ziren, beraiek jaurkitutako guztiak huts egin baitzituzten. Beste finalerdian berriz, Kabi Tabernak ez zuen arazo gehiegirik izan Zestoako Ipurbeltz Gaztañaga taldea gaindi-

tzeko. 6-2ko emaitzaz gailendu zitzaizkien beren kontrarioei.

Finalei dagokienez, faboritoez hitz egiteak ez du zentzu gehiegirik, horrelako partiduetan edozer gauza gerta daitekeelako. Ligan, Trapaia Tabernak aukera handiak ditu titulua eskuratzeko finalerdietako seriotasunarekin jokatzeko badu, baina aurrean talde sendoa izango du, eta berau gaitzetzeko gogor borrokatu beharko du.

Kopan berriz, Xolskaer eta Kabi Taberna taldeen arteko finala erabat irekita dago. Biek era oso modu ezberdinez lortu dute txapelketako azken neurketara ailegatzea, baina ikusi egin behar azkenean noren eskuetan gelditzen den garaipena.

◀ IGOR URANGA



**MENDI - ONDO c.B.**  
**ELEKTRIZITATEA**

- ALARMAK
- ANTENAK
  - . Banakakoak
  - . Kolektiboak
  - . Satellite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

**"Muagi"**

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3. blokea  
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

**BALEIKE**

1999ko apirila. 56. zenb.

# ZINE FORUM



**Apirilak 22, osteguna**

**Character (1997)**

**Zuz:** Mike Van Diem

Azken urteotan holandar zineak eman digun filmerik arrakastatsuen da dudarik gabe "Character" hau, 1997ko

filme atzerritar onenaren oscar-aren irabazlea baita. Charles Dickens-en klasikoen eragin handia duen film honek atsekabez beteriko gazte baten borroka kontatzen digu. Mende hasierako Rotterdam-en pobreziatik atera nahi duen gazte hau, hiriko alguazil beldurgarrienaren sasiko semea da. Gaztea hiriko abokatu famatuaren bulegoan hasiko da lanean, eta bertako idazkariak maite-minduko da. Enpresa barruan, eta baita bizitzan ere gorantz doanean, aita azalduko da, eta ahalegin guztiak egingo ditu semearen itxaropenak zapuzteko. Mike Van Diem-en film hau ezagutzen ez dugun filmagintza baten adibide ederra da.

**aiatzak 6, osteguna**

**Estación Central de Brasil**

**Zuz:** Walter Salles

**Aktorea:** Fernanda Montenegro

Beno, agian oraingo honetan pantailaratuko da 1998ko Berlingo zinemaldiko urrezko hartza irabazi eta oscar-etan filma atzerritar onena eta aktore onenarentzako lehian egon zen pelikula brasildarra, kontratua eginda dago behintzat. Urte hasieran eskaini behar zenean, Zumaiarako gordea zegoen kopia azken momentuan Sevillara bidali zuten Madrilgo banatzaileek. Bigarrenean, aldiz, oscar-etarako izendatu zutelako, eta sari hori irabazteko aukera handiak zituela eta, Estatu guztian bueltaka zeuden filmaren kopia denak Madrilera inguratu zituzten, ondoren saria irabazten bazuen, hiriburuetan berriz eskaintzeko. Zortea izan dugu (halako astakeria bat esatea badago), ez baitu oscar-a irabazi, eta horrela hainbat jenderen bihotza ikutu duen filma Zumaiari ikusteko aukera izango da. Pelikula zertaz doan jakin nahi baduzue, aurreko Baleketan begiratu, pare bat aldiz azaldu da-eta filme honen kritikakoa.

## Irakurketarako aukerak

### Euskaraz

*Euskararen historia txikia Donostian 1800-1998*

*Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat*

*Emakumeak Euskal Herriko historian*

*H. dosierra*

*Antologia*



Koldo Izagirre

JosAnton Artze

Askoren artean

Ismail Kadare

Juan Antonio Mogel

### Gaztelera

*La trata de esclavos*

*Fuera de foco*

*El agente provocador*

*Cuaderno de Nueva York*

*Perros de la lluvia*



Hugh Thomas

Douglas Kennedy

Pere Gimferrer

Jose Hierro

Xabi Puerta

### Haurrak/Gaztetxoak


*Sam-en altxorra*

*Lanbro arteko printzea*

*Utz nazazu bakarrik, Joe*

*Hockeyko atezaina*

*Espaloiak biltzen*



M<sup>a</sup> Teresa Aretzaga

Carlos Ruiz Zafón

Angela C. Ionescu

Rodrigo Muños Avia

Joxemari Iturralde

ILE APAINDEGIA

**Merca  
Uranga**

Etkezaretza, 19 Tel. 862342

**Nikol Enea**  
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

## apirila

**ERAKUSKETAK**• **Pintura tailerrak.**

Apirilean zehar, Forondako ikasleen lanak ikusgai.

► Apirilean zehar.

• **Zumaiako argazki zaharrak.**

► Apirilaren 8tik 18ra.

**Oxford aretoan**

**LEHIAKETA**

Zumaiako 1. kantu lehiaketa

► Apirilak 17, arratsaldeko 7etan.

**Aita Mari aretoan**

**IPIIN KONTAKETA**

Lamiak taldearekin 3-5 urte bitarte-koentzat ipuin kontaketa.

► Apirilak 22, osteguna, arratsaldeko

5,30etan.

**Haur liburutegian**

**ZINE FORUM**

Mike Van Diem-en "Character".

► Apirilak 22, osteguna, gaueko

10,15etan.

**Aita Mari zinean**

**IKUSENTZUTEKOA**

Angel Cuervo Galarraga: "Islandia oinez".

► Apirilak 23, ostirala, arratsaldeko 7etan.

**Forondan**

**ANTZERKIA**

Maskadara taldearen "Izarretako bitakora".

► Apirilak 24, larunbata, gaueko

10,30etan.

**Oxford aretoan**

**EGUNPASA**

Maskarada ikustera Maulera

► Apirilak 25, igandea.

**KONTZERTUA**

Juan Luis Anasagasti (tenorea) eta Jaime I. de Butrón (pianoa).

Kontzertua Sarajevo-ko Bjelave orfanatoarentzat dirua lortzeko da.

► Apirilak 30, ostirala, iluntzean.

**Parrokian**

**ZINE FORUM**

Walter Salles-en "Estación Central de Brasil".

► Maiatzak 6, osteguna, gaueko

10,30etan.

**Aita Mari zinean**

**HIKAZ HITZ EGIN NAHI BADEK/N HURBIL HADI AEK-RA. MAIATZAREN 8TIK HASITA HURRENGO SEI LARUNBATETAN HITANO IKASTAROA**

## Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

**LIBURUTEGIA**

Helduentzat

► Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

► Asteleheneetik ostiralera,

16.00 - 20.00

- Liburuak, aldizkariak, egunkariak... Urtarrietik aurrera OPAC sistemaren bidez kontsulta errazagoa.

- Egin zaitetz liburutegiko bazkide. Mailegu zerbitzuaz baliatzeko bazkidetza behin-betikoa izaten da. Karneta: 800 pezta.

**ARTXIBO HISTORIKOA**

► Egunero, 10.00etatik 13.00era

**INTERNET**

Liburutegian.

► Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30

- Internet txartela: urte osorako bazkidetza: 1000 pezeta.

**ARGAZKI LABORATEGIA**

Txuri-beltzeko argazki laborategia.

**Forondan**

**LUDETEKA**

Haurren txokoa.

► Asteazkenetik ostiralera, 5 - 7:30 larunbatetan, 3 - 6

**Tel: 943 14 32 64**



**ILIANO**  
LIBURUDENDA

Paperdenda  
Aldizkariak  
Fotokopiak  
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe, 7  
Tel. 143191

**ONCE**

**JOXE  
MANUEL**

**Kupoi batzuk  
erosi eta ...**

**ZORTE ON !!**

Tel. 862347 - 861001



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412



## Kultura eta natura uztarturik

Arazik herriko hiru museoak lotzen dituen ibilbide gidatua prestatu du

Joan den martxoaren 29an aurkeztu zen Laia museoan "Kultura eta aisialdiko ibilbidea" izenburua duen katalogoa. Ingurugiro zerbitzuak eskaintzen dituen Arazik enpresa eta Laia museoaren dira ekimen hau garatu dutenak, Zumaiako Udala eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzarekin. Bertan, Zumaiak dituen kultur baliabideak eta ingurunea uztartzen ahalegindu dira, eta emaitza ibilbide aberatsa eta erakargarria izan da. Laia, Zuloaga eta Beobide museoak, San Telmo ermita eta Parrokia, eta Algorriko ingurunea dira ibilbide honek biltzen dituen interesguneak.

Guillermo Echenique Ekonomia eta Turismo diputatua aurkezpenean izan

zen, eta ibilbidea egin ondoren gustora zegoen ikusitakoarekin. Bere ustez, arrakasta handia izango duen ekimena da: "Bisitariarentzat luxuzko plana da. Ziur nago arrakasta handia izango duela".

Bisitaldia Laia museoan hasten da. Bertako produktuak eta lan tresnak ezagutu ondoren, Santiago bidea jarraituz San Telmo ermitaraino igotzen dira bisitariak. Bertan, ermitaz gain inguruneaz gozatzeko eta flysch fenomeno hobeto ezagutzeko aukera dago. Herrira jaitsi eta Parrokia da hurrengo jomuga. Handik Beobideren museora, eta amaitzeko Zuloagaren museora. Eskaintza mardula benetan.

Bisitaldia burutzeko hiru ordu behar dira gutxi gorabehera, eta uneoro artean eta turismoan lizentziatuta dauden gidariak lagunduta. Prezioa 2000 pezetakoa da, eta hilean igande batean doan izango da. Bisitaldi bakoitzean jende kopurua mugatua izango denez aurrez egin behar da eskaria, Laia museoan (943-862512).

Ekimen hau Arazik eta Laia museoaren arteko elkarlanaren beste fruitu bat baino ez da, jadanik bete proiektu batzuk gauzatu baitituzte. Etorkizunerako ere, asmo gehiago dituzte, beti ere euskal kultura eta ingurugiro heziketa uztartzeko helburuarekin.

◀ GORKA ZABALETA

OPTIKA ZUMAI A



Txomin Agirre kaia, 6  
Tel./Faxa: 943-143057  
Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!

Rosi  
garbiketak

\* Etxeak eta dendak  
\* Enpresa eta auzo lanak  
\* Europa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A  
Tel. 861670

# 1965, Afghan Whigs-en urte gogokoena

Orain hamarkada bat (ze azkar ahazten ditugun lehen hain gogoko genituen gauzak, ezta?), munduan zehar itxura zarrapastrosoa izan eta gitarra soinu zikina ateratzen zituzten talde guztiak multzo berdinean sartu ziren, grunge mugimenduan alegia. Komunikabideei ez zitzaaien batere axola talde hauek beraien artean zerikusirik ez izatea, batzuk countrya egitea, besteek punka eta urrutikoek trikitixa, dena zen grunge-a, dena zen Sub Pop. Nirvana, Mudhoney, Screaming Trees, Sonic Youth, Pixies, denak poltsa berean sartu zituzten. Ze inporta zuen batzuk hasi berriak izatea, besteek 10 urte eramatea musika munduan, eta beste batzuk dagoeneko bananduak izatea. Katalogatzeko azkoz errazagoa izaten zen denari grunge izena jartzea. Aldizkari inuzente batek pop-rocka egiten zuen talde espainiar bat, Surfin' Bichos, mugimendu horren barruan sartu zuen.

Pakete horretan sartu zuten beste talde bat Cincinnati hiriko laukote bat izan zen. Beraien izena Afghan Whigs zen ("Liberal Afganoak" eta ez beti esan den bezala "Peluka Afganoak"), eta mugimendu horretan partaidea izateko ezaugarrietako bat betetzen zuen: Sub Pop disketxean bere lanak kaleratzea. Aurretik pare bat disko bazituzten ere, 1992an ateratako "Congregation" diskoarekin dezenteko arrakasta lortu zuten. Hala ere gruntxi integristak ez zeuden guztiz konbentziturik: diskoan "Jesucristo Superstar"-eko kanta bat grabatu zuten, eta gainera souleko ikutu



batzuk ere somatzen ziren. Garai hartan taldea Euskal Herrian zuzenean entzuteko aukera ere izan genuen, santelmo batzuetan Itziarko Txitxarro dantzalekuan jo baitzuten (hamarkada hasieran Txitxarro Estatuko kontzertu salarik garrantzitsuenetakoa zen, bertatik Sonic Youth, Mudhoney, Pavement, Godfathers, etab. pasa baitziren, baina hori beste istorio bat da). Eta errediola, hori da kontzertua! Klean edandako alkohol dena izerdi bihurtu zen rock'n'roll-soul musika boteretsu harekin dantza eginda. Agian hemen izan den kontzertu onenetakoa egin zuen laukote hark.

Urte berean disketxe multinazionalak, Nirvanaren arrakastaren ondoren, talde independente denak fitxatzen hasi ziren, eta noski, Afghan Whigs ere fitxatu zituzten. Hauek kontu korrentean dirua ikusi eta Menphiseran joan ziren disko berria grabatzera, soularen hiriburura alegia. "Gentlemen" zen lan haren izena, eta aurrekoa baino disko hobea izanda ere, ez zuten merezitako arrakasta lortu. Kalitate aldetik ez dago inongo dudarik, bikaina zen (eta da), eta

horrela aldizkari denetako lan onenen zerrendan kokatu zen.

Gorantz doana amildu egiten da, hau da, "La caída del imperio romano". Grunge-aren puxika gehiegi puztu zen eta pum! egin zuen: Kurt Cobain hil zen; lehen eszitazioa zena orain monotonia zen; taldeak gero eta disko aspergarriagoak egiten hasi ziren.

Mugimenduarekin zerikusia zuten taldeek pott egin zuten, zerikusirik ez zutenek, aldiz, berearekin jarraitu zuten (aupa Sonic Youth, aupa Screaming Trees, etab). Afghan Whigs-ek, agian kontagiaturik, diskorik txarrena atera zuten, "Black love" izenekoa. Hala ere maila ederra mantentzen zuten. Ondorengo 2-3 urteetan ez da gauza handirik entzun, baina zai egoteak merezi izan du, aurreko urte amaieran "1965" izeneko diskoa atera dute eta. Eta, buff!, hori da diskoa, inspirazioz betea, colacao litro bat hartu balute bezala. Energia, sentimendua, erritmoa, dantza, tronpetak, saxoa, sexoa, soula alegia. Disko motxa, eta motxa egiten dena, bikaina, zoragarria, behin eta berriz entzunda aspertzen ez duena. Eta zergatik jarri dioten "1965" izena? Barruan agertzen den urte horretako arrakasten zerrenda ikustea besterik ez dago: Supremes, Impressions, Martha & the Vandellas, Solomon Burke, Marvin Gaye, Temptations, Otis Redding, etab. Soulean zerikusi handia izan duen jendea, eta denak urte (eta disko) berean, "1965"ean alajaina.

◀ JUAN LUIS ROMATET

**BELARDENDA**  
**SIWA**  
 Izaga Garcia  
 DIETISTA  
 Esther Blanco  
 OSTEOPATA - MASAJISTA  
 Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

## SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis

Tel./Faxa: 861416



# KULTUR ETXEA, KUNSTAAL EDO GALERY

Zumaiako kultur etxea ez da guztien gustukoa

*Zumaiako kultur etxea, Foronda Jauregia, ez da kultur etxe bat. Foronda jaunaren etxea izanik, etxebizitza bat izateko eraikia da. Lekua, inguruak eta batik bat bere egitura, ez dira guztientzako izan beharko lukeen kultur etxe batenak.*

Beste kokalekurik aurkitu ez zaion artean, gaur egun dagoen moduan, ez du zerbitzu makala eskaini hor dagoen denboraldi honetan.

## 1-ARRAZOIAK

Guztientzako kultur etxe bat ez dela esaten dudanean, ez dut esan nahi inori erabiltzea debekatzen zaionik, baizik eta etxearen erabilera ez delako guztientzako hain eroso. Eraikin honek ez du igogailurik, barneko eskailerak estuegiak dira eta kultur etxerako sarrera ez da laua.

## 2-ALDARRIKAPENA

Egunotan kalean zehar sinadurak biltzen aritu diren zumaiarrek aldarrikapen bat egin dute: "Oxford" eta Arrangoleta eraikuntzen salmentaren aurrean, eraikinen erabilera publikoa. Ez da Oxforden erabilerari buruz hitz egiten entzuten dugun lehen aldia.

## 3-KULTUR ETXEA ETA ARTXIBOA

Imajina ezazu, Erribera kaleko eraikina kultur etxe bihurtzen badugu.

1. solairuan, hitzaldi aretoa eta erakusketagune funtzional bat.
2. solairuan, Mari kaleko atletik sartuta eta hitzaldi aretoarekin igogailu batekin elkartuta, liburutegia eta irakurgela.
3. solairuan, tailerrak, ikasgelak eta ikastaroentzako lekua.
4. solairuan, Udaleko kultur patro-



natua, kultur etxeko arduradunen bulegoak eta herriko kultur taldeen langelak.

Foronda, gaur egun dauden kultur taldeek dituzten lekuak mantenduz, Udal Artxibo bezala erabil daiteke zatirik handienean.

## 4-DONOSTIAKO KOLDO MITXELENA KULTUR ETXEA

Garai batean Injineruen eskola zen eraikuntza honen arrakasta ikusgarria da. Batetik kokalekuagatik, eta bestalde eraikinak eskaintzen dituen erosotasunengatik. Adibide hurbilena iruditzen zait, gure Oxford kultur etxea imajinatzeko. Herriaren erdi-

erdian dago, eraikuntzaren altxaerak garrantzi historikoa du, eta batez ere, urte guztian zehar nola erabiltzen den ikusirik arrakasta izango lukeela uste dut.

Oxford, garai baten Profesional Zaharra izan zen. Hiriburuan Injineru eskola, eta herrian, ba langileen eskola. Hiriburuan Koldo Mitxelena kultur etxea eta Herrian Julene Azepeitia kultur etxea, Baltasar Etxabe kultur etxea, Txomin Agirre kultur etxea edo Oxford kultur etxea.

Ziur eztabaida gehiago sortzen duela kultur etxearen izenak, eraikuntzaren erabilerak baino.

◀ DANIEL CARBALLO OSTOLAZA

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323



TALAI-MENDI  
DEKORAZIOA

- \* Eskaiola
- \* Pintura
- \* Pladur
- \* Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35  
Tel. 929-550574

TXALAPARTA  
OPARIAK

Angeles Sorazu, 2  
Tel. 143089





## Garai bateko San Telmoak

*1951ko San Telmoetan lehiaketa egin omen zen marinelez jantzi eta herria girotzeko, argazkiko talde honek irabazi zuen, ondo merezita*

**TXAPARTEGI GOZOTEGIAK** emandako azken tarta **Ibon Vicente Sasiain**entzat izan da. Berak zioen bezala izaki unizelularra Migel Angel Martija, Mielito edo Marti, zen.

### *Lehiaketa goxoa*

Adi, adi! ea tarta goxoa nork eramaten duen!!!



### **Zein da argazkiko saxofoilari nekaezin hau?**

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure hirugarren buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, apirilaren 26a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!

ESTAZIO KALEA, 25 20.750 ZUMARRA  
GIPUZKOA KALEA, 33 C 3º 20.900 ZARAUTZ  
(GIPUZKOA)  
TEL. (943) 96 07 79 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu  
...mantenimendua  
Nekazaritza zerbitzuak  
Kirol zelaien mantenimendua  
Txostenak ...  
aholkularitza teknikoa,  
Batorazioak

**TXINGURRI**  
Koop. Elk.  
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

**TXOKO**  
**T**  
**A**  
**B**  
**E**  
**R**  
**N**  
**A**

Artadi auzoa  
Tel. 862189

### **AROTEGIA**

**Urola 2000, s.l.**

- \*Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- \*Baserrien zaharberritzea
- \*Enbarkazio konponketa
- \*Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- \*Armairu enpotratuen aurrealdea
- \*Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

**motxian hi!**



**zein:** Esther  
**zer:** Ikaslangilea  
**Nola:** Estherila

**Motxian hi-ko espezialista, zer gomendatuko zeniguke elkarrizketak egiteko?**

Enpatia eukitzea, elkarrizketatuaren tokian jartzen jakitea, alegia.

**Motx-motxian esanda, zein da Esther?**

Pertsona alai bat.

**Motxa eta motza izatea elkarrekin al doaz?**

Ezta pentsatu ere. Ni ikusi besterik ez dago!

**Gales-ko egonaldia zer suposatu du zugan?**

Burua gehixeago irekitzea, gauzak ikasteen horixe gertatzen da.

**Baleikeko neska-txiki izana, zertan zabiltza?**

Oso bizimodu mugitua daramat. Ikasten eta aldi berean lanean nabil. Gainera ondo pasatzea ere atsegin dut. Oraindik ere neska-txiki izaten jarraitzen dut, baina beste gauza batzuetan.

**Zerri jarriko zenioke zure bizia prezioztat?**

Bizitza berari.

**Sagardoa ala katiuskak?**

Orain konturatzen naiz gauza bat ala bestea aukeratzea zein zaila den.

**Nola ikusten da mundua hor behetik?**

Desberdina.

**Bidaia bat tokatu zaizu zerbezen tapak kolekzionatuta, nora joango zara?**

Argentinara, bereziki Patagonia ezagutu nahiko nuke.

**Tabernatan ez zaitut inoiz ikusi. Ez al duzu giro hori gustoko?**

Ez al da izango zu ez zarela etortzen tabernatara?

**Azken lerroa duzu nahi duzuna esateko.**

Aupa jendia. San Telmotan ondo pasa, eta ikusten garenean "Aupa Esther" esan, poztu egingo naiz eta.

**agurrak**

Mari eta Eli-rentzat:

Aupa parranderas! zermozuz Txitxi-n?

kontuz Holanda alde horretatik ezagutzen gera ta. Eta kontuz frantsesekin beso de tornillo omen daukate eta.

Ondo pasa baina pasatu gabe!!!

Zuen konpiyak?

Eta Eli zorionak.

Baleike, hilerokuak 30 orri... urtekariak 11 bakarrik? Zumayan bakarrik ikustetuk/n holakuak!!!

Luxia bai, baiña...olarrua patatakin janda jai zio/n!! Zestuarripe etziok/n Kontxaik!!!

Hi Patxi!

Aldapabehera eon arren, erreka urak gora eitten zian.... goatzen haiz?

Garai hayek nuntxuk?

Pordioos, hartzeiaun zurito bakoitzeko gogoan haugu (pentsa zenbat akordatzen gean hirekin). Animo, american boy, jun bai, baina bueltatzekotan, eh!

TXIXAPA

Haritzek jolasten du sarritan paletan punteri aldetikan makala benetan aurrian jartzeanak erruki eskean pelotak eman dio jota bizkarrean

A.P.M.

Doinua: Haizeak bidali du...



Argazki eta bideo erreportaiak  
Errebelatzeak  
Kamarak  
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

**ZALLA**  
Taberna - Erretegia

- \* plater konbinatuak
- \* otartekoak
- \* oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Zerbitzu Ofiziala

**ZUMAI MOTOR**

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



Zumaiako Udalak

San Telmo jai zoriontsuak  
opa dizkizue zumaiar guztiei

*jaiak denonak izanda, denok festara!*



**ERROTA**



**OPIIL  
OKINDEGIA**

*era guztietako tarta  
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA


ETXEZARRETA, 6  
ZUMAIA  
TEL. 861078

## KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA  
EGITEN DITUGU.  
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO  
KONPROMEZURIK GABE

*Zatuz eta galdetu*

GAS NATURALA  
BUTANO  
PROPANO



**25** urtetik  
gorako esperientzia

## AUTOS ZUMAIA AUTO-KONPONKETAK

INSTALAZIO BERRIAK  
ESTAZIOKO INDUSTRIALDEAN

Mekanika orokorra  
Direkzioaren lerrokatze elektronikoa  
ITV aurreko azterketa  
2. eskuko autoen erakusketa

UROLA PLAZA 3-5 TEL. 943 86 14 85